



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Dictamen de Comisión Informativa

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Informazio Batzordearen Irizpena

AYT/CIP/23/2017

ORG1110MF

Código de validación/*Balidazio kodea*

6K182D0G686C1P1Z13SC



Gai Orokorren eta Udalbatzarrak aztertu beharreko gaien Informazio-batzordeak 2017ko ekainaren 20an (e)(a)n hartutako erabakiz Bozeramaleen batzordearen iritzipean jarriko da Ekainaren 28an LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dela eta, PSE-EE PSOEk aurkeztutako erakunde-adierazpenaren onesteari buruzko ondorengo ebazpen proposamena, organo horrek, hurrengo bilkurara bertaratzen diren Batzordeko kideen gehiengo osoz, gaiari buruz erabaki dezan:

Por la Comisión Informativa de Asuntos Generales y de Pleno celebrada el día 20 de junio de 2017, se eleva a Junta de Portavoces para que adopte acuerdo al respecto, en la primera sesión que celebre, por mayoría de los/as miembros de la Junta presentes en la sesión de aquella, sobre aprobación de la Propuesta de resolución relativa a la Declaración Institucional presentada por PSE-EE PSOE con motivo del Día Internacional del Orgullo LGTBI(28 de Junio).

1969an New Yorken (Estatu Batuetan) Stonewalleko istilluak gertatu zirenetik, ekainaren 28a hausnarketa-eguna da mundu osoan, berdintasuna, aniztasunarekiko errespetua, askatasuna eta diskriminazio eza bezalako balio unibertsalak ikusgai jartzeko.

Desde que en 1969 se produjeran los disturbios de Stonewall en Nueva York (Estados Unidos) la comunidad mundial celebra, cada 28 de junio, una jornada de reflexión con el objetivo de visibilizar valores universales tales como la igualdad, el respeto la diversidad, la libertad y la no discriminación.

Nahiz eta azken hogeita hamar urteotan Nazio Batuetako eskubideen babes-sisteman, eta bereziki Europan, LGTBI pertsonen eskubideak gero eta gehiago aintzat hartzen diren, egia da, halaber, gaur egun oraindik sexu-aniztasuna intolerantzia basatiaren biktima izaten jarraitzen duela, lesbiana, gay, transexual, bisexual, eta intersexualek modu eta adierazpide ezberdinetan jasaten duten diskriminazioagatik.

A pesar del progresivo reconocimiento de los derechos de las personas LGTBI en el sistema de protección de derechos de las Naciones Unidas en los últimos treinta años y particularmente, en Europa, no es menos cierto que, hoy en día, la diversidad sexual sigue siendo víctima de una brutal intolerancia y discriminación sufrida, en diferentes formas y manifestaciones, por lesbianas, gays, bisexuales, transexuales e intersexuales.

Egun Espainiako toki-gobernuok lehenengoetarikoak gara LGTBI

A día de hoy, los Gobiernos locales españoles estamos a la vanguardia en

kolektiboaren eskubideak lege bitartez aintzat hartzen, baina, tamalez, eskubide horien aintzatespena ez da mundu-mailara zabaldu, ez eta bete-betea ere.

Beharrezkoa da sexu-aniztasunaren aintzatespen eta babes unibertsalerantz aurrera jotzea, pertsona guztien egiazko berdintasuna ziurtatuko duten politika publikoak garatuz eta zerbitzuak ezarri, bakoitzaren sexu-joera eta genero-nortasuna edozein dela, horixe delako bizikidetzat, aurrerapen eta gizarte- eta ekonomia-garapen jasangarriaren oinarria.

Eta, izan ere, egiazko berdintasunaren testuinguru horretan, toki-gobernuok, hiritarren iritzia sarrera zuzena eta egiazkoa daukagunok, funtsezko eginkizuna daukagu hiritarren arteko bizikidetasuna eta lesbiana, gai, transexual, bisexual eta intersexualen diskriminazioa eza ziurtatzeko.

Udal, diputazio, consell, irletako kabildo eta abarrok eskatu egiten dugu tratu berdintasuna eta diskriminazio eza ziurtatuko duten zeharkako politika estrategikoen diseinuan eta garapenean funtsezko eragile legez dagokigun eginkizuna.

Horregatik guztiatik Ermuko Udalak:

- *Pertsonen sexu-aniztasunaren aldeko politiketan inbertitu beharra aitortzen du eta sexu-joerarengatiko edo genero-nortasunagatiko*

el reconocimiento legal de los derechos del colectivo LGTBI pero lamentamos que el reconocimiento de estos derechos no se haya producido a nivel universal, ni de manera plena.

Es necesario avanzar hacia el reconocimiento y protección universal de la diversidad sexual, desarrollando políticas públicas e implementando servicios que aseguren la igualdad efectiva de todas las personas, con independencia de su orientación sexual e identidad de género, como elemento esencial para la convivencia, el progreso y el desarrollo social y económico sostenible.

Y, precisamente, es en ese contexto de igualdad efectiva donde los Gobiernos Locales, puerta de entrada directa y real del sentir de la ciudadanía, estamos llamados a jugar un papel clave para garantizar la convivencia ciudadana y la no discriminación de lesbianas, gais, transexuales, bisexuales e intersexuales.

Ayuntamientos, Diputaciones, Consells y Cabildos Insulares reclamamos nuestro papel como agentes esenciales en el diseño y el desarrollo de políticas transversales y estratégicas que garanticen la igualdad de trato y la no discriminación.

Por todo ello el Ayuntamiento de Ermua:

- Reconoce la necesidad de invertir en políticas en favor de la diversidad sexual y la no discriminación de las personas por



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Dictamen de Comisión Informativa

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Informazio Batzordearen Irizpena

AYT/CIP/23/2017

ORG1110MF

Código de validación/Balidazio kodea
6K182D0G686C1P1Z13SC



diskriminazio ezaren aldeko politiketan. Horretarako arreta-, informazio-, prestakuntza- eta sentsibilizazio- programak eta proiektuak garatu beharko dira, gure hiri eta herriak sexu-aniztasunarentzat espazio seguruak izan daitezzen.

- Giza-eskubideekin eta, ondorioz, pertsonen egiazko berdintasunaren printzipioarekin daukagun konpromisoari eusten diogu, eta horren baitan biltzen dira sexu-aniztasuna eta sexu-joerarengatik edota genero-nortasunagatik pertsonen diskriminazio eza, esparru horretan izan diren aurrerapausoak aitortuta, baina egun bizirik dirauten oztopoak gainditze aldera aurrera jotzeko daukagun erabaki irmoa sendetsiz.

- Gure estatuan LGTB pertsonen aurkako erasoek gehikuntza ikusita, gure kezka eta gaitzespena adierazten ditugu, eta gure eremutik gogor lan egingo dugula hitz ematen dugu egoera horri behar bezala erantzuteko, batez ere Toki Poliziari informazioa emanaz eta berori ondo prestatuz.

- Udalen laguntzarik gabe ezin da berdintasun politikarik bideratu, horregatik toki-erakundeak kontu horietarako eskumenez eta behar adina baliabide eta bitartekoz

su orientación sexual o identidad de género a través del desarrollo de programas y proyectos de atención, información, formación y sensibilización que hagan de nuestras ciudades y pueblos espacios seguros para la diversidad sexual.

- Reafirmamos nuestro compromiso con los derechos humanos y, en consecuencia, con el principio de igualdad efectiva entre las personas, del que forma parte la diversidad sexual, así como de la no discriminación de las personas por su orientación sexual o identidad de género, reconociendo los avances en este marco, al tiempo que reiteramos nuestra firme determinación de avanzar en la superación de las barreras que aún perviven hoy en día.

- Manifestamos nuestra preocupación y condena ante el aumento de número de agresiones hacia personas LGTBI en nuestro país y trabajaremos desde nuestro ámbito para responder adecuadamente a esta situación, especialmente mediante la información y formación de la Policía Local.

- No son posibles las políticas de igualdad sin los Ayuntamientos. Por ese motivo, reivindicamos la necesidad de dotar a las Entidades Locales de las competencias en

hornitu beharra aldarrikatzen dugu, Espainiako Gobernuarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean pertsonen egiazko berdintasuna bermatzeko politika eta ekimen guztiak gure herri eta hiri guztietan egokitasunez ezar daitezela ziurtatzeko.

esta materia así como de suficientes medios y recursos para, en colaboración con el Gobierno de España y el Gobierno Vasco, asegurar la implementación adecuada de todas las políticas e iniciativas necesarias para garantizar la igualdad efectiva de las personas en todos nuestros pueblos y ciudades.

BOZKETAREN EMAITZA	RESULTADO DE LA VOTACIÓN
<i>PSE-EE/PSOE: Aldekoak 5</i>	PSE-EE/PSOE: A favor 5
<i>EH Bildu: Aldekoak 2</i>	EH Bildu: A favor 2
<i>EAJ/PNV: Aldekoak 3</i>	EAJ/PNV: A favor 3
<i>Se puede Ermua Ahal da: Aldekoak 1</i>	Se puede Ermua Ahal da: A favor 1
<i>PP: Aldekoak 2</i>	PP: A favor 2
<i>Irabazi: Aldekoak 1</i>	Irabazi: A favor 1